

# DIRU SARRERAK

Sustrai egitasmoa memoria arazoak dituzten pertsonentzat eta haien familientzat bideratuta dago gehienbat, beraz, gure helburu nagusia, hauen beharrak asetzea izango da. Baina, gure zerbitzua, pazienteen gain, beste hainbat bezerori zuzendutata dagoenez, gure proiektua zerbitzu publiko eta pribatua izango da, hau da, bien arteko nahasketa. Zerbitzu publikoa, memoria arazoak dituztenei eta haien senideei bideratuta egongo da, eta zerbitzu hau finantzatzeko administrazio publikoetatik diru-sarrera gehienak jaso behar ditugula uste dugu, gure negozio ideiarekin, gizarte justuagoa lortzeko. Zerbitzu publikoko prezioak ez dira doakoak izango, izan ere, pribatuan eskainitako zerbitzuaren kostuaren erdia balioko dute.

Hala ere, gure egitasmoa aurrera eramateko, finantzazioa gehiago behar dugu, eta hori lortzeko, [euskal jaurlaritzak ekintzaile gazteei ematen dizkieten diru-laguntzak](#) eta [Espainia estatuak emandako diru-laguntzak](#) jasoko ditugu. Horretaz gain, beste ekintza hauetatik ere diru-sarrerak lortuko ditugu.

Terapien bonoen prezioak zehazteko, Espainian zehar terapiak balio duten prezioetan oinarritu gara. **Terapia indibidualen prezioa** zehazteko, psikologia munduan espezializatutako webgunearen ikerketa batean oinarritu gara, horren arabera, tarifa komunitatearen arabera aldatu daitekeen arren, [Espainian saio baten batez besteko kostua 51 eurokoa da orduko](#).

**Terapia familiarrak** direla eta, gure herrialdean [familia-terapiako saio baten gutxi gorabeherako prezioa 70€ ingurukoa](#) izan daiteke. Terapia familiarretan zehaztu dugun prezioa, 5 kideentzako izango litzateke. Kide gehiago etorriko balira, kide bakoitzeko 10€ gehituko litzateke. Horretaz gain, aipatu beharra dago, bono eta deskontu batzuk eskeiniko ditugula, hau da, hilabetean 4 terapia saio egiten badira, terapia saio bakoitza 5€ merkeagoa izango litzateke. Deskontu eta bono hauetat gain, etorkizun gertu batean, beste pack ezberdin batzuk ateratzeko asmoa daukagu.

Gure terapien eskaintzen bonoekin amaitzeko, **terapia grupalen prezioa** gu geuk ipintzea erabaki dugu, beste enpresen eskaintzetan oinarritu gabe. Terapia hauek, 15 eta 20 pertsonen osatuko dute, hilabetean 4 saio egingo dira, eta tarifa pertsonako 20€ koa izango da. Hori guztia esanda, zerbitzu publikotik eskeiniko ditugun terapiak, eusko jaurlaritzak subentzionatzea espero dugunez, merkeagoak izango dira.

TERAPIEN BONOAK (Zerbitzu publikoaren eskaintza)

Terapia Indibiduala	Ordu bateko terapia-----25€ Hilabetean 4 terapia-----80€
Terapia familiarra	Ordu bateko terapia-----35€ Hilabetean 4 terapia-----140€
Terapia grupala (hilabetean 4 saio)	Pertsona bakoitzeko-----10€

TERAPIEN BONOAK (Zerbitzu pribatuaren eskaintza)

Terapia Indibiduala	Ordu bateko terapia-----50€ Hilabetean 4 terapia-----180€
Terapia familiarra	Ordu bateko terapia-----70€ Hilabetean 4 terapia-----260€
Terapia grupala (hilabetean 4 saio)	Pertsona bakoitzeko-----20€

EKINTZAK

Irteerak	Irteraren arabera prezioak desberdinak izango dira. Hala ere, bezeroen prezioa 10 €-tik gorakoa izan ez dadin saiatuko gara.
Hitzaldiak	Borondatez eskainiko ditugu.

Bestalde, *Gu-Geu* ondasunen bonoak finkatzeko, hauek nolakoak diren gutxi-gorabehera zehaztea erabaki dugu. Liburuak eta nobelak izango dira, eta gehenez 200 orrialde izango dituzte. Albumak, liburuak bezala izango dira, baina hauek, testuez gain, argazki eta irudiz eginak egongo dira. Amaitzeko, film laburrak gehienez 30-40 minutu iraungo dute.

Liburuen eta albumen prezioak finkatzeko, bezeroaren eskaeraren arabera alda daiteke, hau da, diseinuaren, orrialde kantitatearen eta abarren arabera. Hauen prezioa asko alda daitekenez, gehienez jota kopia bakoitzeko 400€ kobratuko ditugu.

GU-GEU-AK (Zerbitzu publikoaren eskaintza + Sustraiak egina, aurrez aurre)

Liburuak	30€ gutxi-gorabehera
Albumak	30€ gutxi-gorabehera

*GU-GEU-AK (Zerbitzu publikoaren eskaintza + bezeroak egina, webgunetik)*

Liburuak	20€ gutxi-gorabehera
Albumak	20€ gutxi-gorabehera

*GU-GEU-AK (Zerbitzu pribatuaren eskaintza + Sustraiak egina, aurrez aurre)*

Liburuak	50€ gutxi-gorabehera
Albumak	50€ gutxi-gorabehera

*GU-GEU-AK (Zerbitzu pribatuaren eskaintza + bezeroak egina, webgunetik)*

Liburuak	40€ gutxi-gorabehera
Albumak	40€ gutxi-gorabehera

Film laburren prezioa, liburu eta albumena bezala, alda daitezke. Gainera, [Altube filmeak](#) enpresarekin aliantza izango dugunez, eta hauek filmeak egingo dituztenak direnez, haiek, prezioak ezarriko dituzte. Hala ere, hauek oso garestiak ez izaten saiatuko gara. Horretarako, hasieran aipatu ditugun gobernu publikoetatik lortuko ditugun diru laguntza ezberdinak erabiliko ditugu.